

ERREPORTAJEA



Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako sagardotegiak Donostian elkartu ziren joan den asteartean, aurtengo denboraldiaren aurkezpena egiteko.

Andoni CANELLADA | FOKU

Txotx denboraldia, betiko moduan

Euskal sagardotegiek dena prest dute aste honetan txotx denboraldia hasteko. Azken hiru urteetan bizitako gorabeheren ondoren, oraingoan murrizketarik gabe zabalduko dituzte ateak eta upeltegiko giroa berreskuratuko dute. Aurtengo ekoizpena txikiagoa izan bada ere, izaera handiko sagardoak espero dira.

Joseba SALBADOR GOIKOETXEA | DONOSTIA

Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako sagardotegiak aurtengo txotx denboraldiaren aurkezpena egin zuten joan den asteartean Donostian. Guztiak itxaropentsu agertu ziren normaltasunera itzuliko den denboraldiarekin, eta bezeroentzat prestatu dituzten berritasunak aurkeztu zituzten, Lakuako Gobernuak eta Gipuzkoako Aldundiko ordezkarien babesa izan zuen ekitaldian.

Ekoizpenari dagokionez, pasatu den udazkeneko uztat kopuruz aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da. Espero zitekeen gauza zen, sagar urtea ez zelako tokatzen, baina udako eguraldi lehorrak are eta txikiagoa bihurtu du uztat. Ondorioz, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako sagardotegiak guztira 9 milioi

litro inguru sagardo egin dituzte, 2020an lortutako 12,2 milioiko markatik urrun.

Horien barruan, bertako sagarrarekin egindako Jatorri Deiturako Euskal Sagardoaren produkzioa 1,2 milioi litrokoa izan da, orain dela bi urteko kopuru bera, baina kasu honetan ere 2020ko 4 milioiko markatik urrun.

Jatorri Deituraren lehendakari den Oihana Gainzarainek azaldu zuenez, ekoizpen txikiago horrek eraginda, izaera handiagoko sagardoak izango dira aurtengo orokorrean, tanino altuko eta alkohol graduazio handiagokoarekin. «Luzera, bilakaera oso ona izango duten sagardoak dira orokorrean», esan du.

Gaur egun Euskal Sagardoa egiten duten upategiak 48 dira guztira: 42 Gipuzkoan, 4 Bizkaian eta 2 Araban. Euskal Sagardorako egiten duten sagargileak, berriaz, 250 dira eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dituzte horretarako. Azken uztat honetan bi milioi kilo sagar bildu dituzte.

LARRE-GAIN
Tolara - Sagardotegia
Sagardo botila urte osoan salgai
www.larre-gain.com
Larre-Gain Baserria
ERENOTZU HERNANI
t. 943 55 58 46 - 616 28 78 67

uxarte
bertoko sagardoa
Montorra, 6° 48340 ZORNOTZA 94 630 88 15 - www.uxarte.com